

# 8. PIEZA

## **❑ FUNTSEZKO JARDUERAK**

### EKOIZPENA

- ❖ Gure enpresa, ludoteka alternatibo bat da. Beraz, bertan egoten diren jarduerak eta ekintza berritzaileak izango dira arrakastaren gakoa eta beste ludotekeekiko desberdin egingo gaituena. Horrek, esan nahi du, gu laurok izango garela, enpresaren ekoizpena aurrera eramango dugunak.
- ❖ Enpresa aurrera eramateko eta ludotekak arrakasta izan dezan, guk izango gara balore ezberdinetan oinarrituta, ekintza sortzaileak eta berritzaileak prestatuko ditugunak, hau da, ezin dugu hori beste pertsona edo enpresa baten esku utzi.
- ❖ Jarduera berritzaileak prestatzeaz aparte, kanpoko enpresen esku utziko ditugun jarduerak izango ditu baita ere. Alde batetik, gu laurok baino gehiago espezializatuta dauden pertsonak izango dira gurasoei txarлак emango dizkietenak, beraz, langileak izango ditugu enpresaren barne. Txarлак izango dira kanpoko enpresa baten esku utziko ditugun jarduerak, materiala erosteko enpresarekin batera.

### ARAZOAK KONPONTZEA

- ❖ Gure enpresa, lan handia dauka, batez ere, ludoteka asko daudelako gaur egun. Guk nahi dugun helburua lortu ahal izateko, lan asko egin behar dugu, egunero landu nahi ditugun balore horiek ideia berriekin lotu behar ditugulako. Horrek esan nahi du, ekintzak landuak eta sortzaileak izan behar direla, hori delako beste ludoteketatik desberdin egiten gaituena.

- ❖ Lauron artean diseinatuko ditugu ekintza desberdinak, badakigu batzuetan buru hauste handia izango dela eta arazoak izango ditugula proiektua aurrera eramaten dugun bitartean, baina partaideen artean oso ongi ezagutzen gara eta badakigu aurrean jartzen zaizkigun arazo guztiak gainditzeko prest egongo garela. Hala nola, gure artean izango ditugun arazoak, gure proiektua aurrera eraman ahal izateko izan ahal ditugun arazoak, eta baita ere beste enpresekin edo gure bezeroekin izango ditugun arazoei begira.

## PLATAFORMA EDO SAREKO JARDUERAK

Gure enpresaren plataforma eta sare sozialei buruz, enpresaren partaide guztiak nahiko ezagutza dugu. Sandra, lehen aipatu dugun moduan, izango da gehien bat enpresaren webgunea eta sare sozialen erabilera eramango duena. Bera delako lauron artean ezagutza gehien duena. Hau da, plataforman arazo bat izanez gero, guztiak izango gara arazoa konpontzen saiatuko garenok, baina Sandraren gehiengo ezagutza dela eta, bera hartuko du paper hori.